

2 GAIA: POLITIKA EKONOMIKOAREN HELBURU ETA TRESNAK

GAIAREN ESKEMA LABURTUA

1) Helburuak

Helburu orokorrak
Helburu ekonomikoak
Helburuen arteko gatazkak

2) Tresnak

Tresnen sailkapen orokorra

3) Politika ekonomikoaren taxonomia

4) Politika ekonomikoa eta eskola ekonomikoak

Klasikoak
Keynestarrak
Monetaristak
Klasiko berriak
Keynestar berriak

1) POLITIKA EKONOMIKOAREN HELBURUAK

- Helburu orokorrak (*aims*): Gizartearen lehentasunen adierazgarri direla esan genezake. Agintari politikoek gizartearen nahiak interpretatzen dituzte, batetik araudietan (i.e. konstituzioa) eta bestetik hauteskudeen emaitzek dakarten momentuko lehentasunen aldarrikapenean oinarrituz.

HELBURU OROKORRAK

| | HELBURUA | ESANAHIA |
|-----------------|----------------------------------|--|
| barne helburuak | <i>Ongizate ekonomikoa</i> | Hiritar guztien bizitza mailaren hobekuntza orokorra |
| | <i>Nortasunaren garapena</i> | Gizabanakoaren trebezia eta ahalmenen garapena erraztea |
| | <i>Ekitatea eta berdintasuna</i> | Berdintasuna legearen aurrean eta garapen indibiduala lortzeko orduan |
| | <i>Askatasun indibiduala</i> | Adierazpen eta elkarpen eskubidea |
| | <i>Elkartasuna</i> | Gizarte talde desberdinen arteko tentsioa murriztea |
| | <i>Ordene lege arloan</i> | Lege eta araudiak betetzeko neurriak ahalbideratzea |
| kanpo helburuak | <i>Balore etikoak</i> | Moralarekin edo eta erlijioarekin loturiko irizpide basikoak finkatzea |
| | <i>Segurtasuna eta bakea</i> | Kanpotik datozen mehatxuen kontrako babesa. Nazio arteko segurtasun eta bake hitzarmenen atxikipena barne. |
| | <i>Nazioarteko elkartasuna</i> | Garapen bidean edo estutasun berezietan aurkitzen diren herrialdeekin kooperatzea |

- Helburu zehatzak (*objectives, targets*): Xede orokorren konprezioak dira. Normalean bi taldetan banatzen dira: *helburu ekonomikoak eta gizarte arloko helburuak*. Azken hauek (hezkontza, osasungintza, etxebizitza publikoen dotazioak, etabar) baliabideen kontsumitzaileak dira.

Adibideak:

- Ekonomiaren hazkunde tasa zehatz bat lortzea (%3)
 - Enpleguaren sorrera (desenplegu tasa %7-ra hurbiltzea)
 - Hobekuntzak lortzea errentaren banaketan (pobrezia tasa murriztea)
- Helburu ekonomikoak: ongizate ekonomikoarekin lotura hertsiena dutenak dira. Politika ekonomikoaren edozein programatan 5 ageri dira.
 - ❶ Enplegu betea
 - ❷ Prezio egonkortasuna
 - ❸ Hazkunde ekonomikoa
 - ❹ Errenta eta aberastasunaren birbanaketa
 - ❺ Pagamendu balantzaren oreka

} Epe laburreko helburuak

} Epe luzeko helburuak

HELBURU EKONOMIKOAK

| HELBURUA | ESANAHIA | NEURKETA |
|------------------------------|--|---|
| Hazkunde ekonomikoa | Ekoizpen mailaren hazkunde egonkorra eta jasangarria, ekoizpen-ehunaren egiturazko aldaketak barne | BEG BEG perkapita |
| Enplegu betea | Lanpostu garbien sorrera bermatu, desenplegu ziklikoa aurreikusi eta murriztu, epe luzeko desenplegua murriztu. | Desenplegu tasa Jarduera tasa Enpleguaren banaketa |
| Prezio egonkortasuna | Prezioak tarte egonkor batetan mantendu batetan mantendu. Inflazio moderatua. | KPI HPI BEG deflaktatzailea |
| Errentaren birbanaketa | Diru sarrera pertsonalen arteko desberdintasunen eta aberastasunaren konzentrazioaren murrizketa. Ondasun publikoen probisioa. | Errentaren banaketa Giniren indizea |
| Ordainketa Balantza orekatua | Kanpo defizita murriztu, dibisen erreserbak mantendu, kanpoarekiko kaudimena mantendu | Kontu korrante balantza Merkataritza balantza Ganbio tasa |

HELBURUEN ARTEKO GATAZKAK

- Helburu guztiak ezin daitezke aldi berean lortu. Helburu anitzen artean *bateraezintasunak* agertzen dira.
- 3 motatako gatazkak bereizi daitezke:
 - ❶ Oinarrizko gatazkak
 - Adibidez: Ekoizpena eta aisialdia aldi berean igotzea; Inflazioa/enplegua.
 - ❷ Epe motz/luzeko helburuen arteko gatazkak
 - Ad.: Jarduera eta enplegua sostengatu (e/m)/jarduera produktiboaren berregitura enpleguaren alde (e/l)
 - ❸ Gizarte arloko eta helburu ekonomikoaren arteko gatazkak
 - Ad.: Efizientzia eta ekitatearen arteko gatazka. Hazkundera, enplegua, prezio egonkortasuna ⇒ efizientzia; Irakaskuntza, osasun sistema, etxebizitzak ⇒ ekitatea.
- Helburuen arteko gatazkek ez dute konponbide errazik.
 - Helburu desberdinen arteko konbinazio desberdinen artean erabaki beharko da.
 - Helburuen arteko hierarkizazioa. Aldakorra da denbora pasa ahala.
 - Erabaki politikoa azken finean.

2) POLITIKA EKONOMIKOAREN TRESNAK

- Finkatutako helburuak lortzeko agintari ekonomikoek eskura dituzten aldagaien multzoa. Kontrolatu daitezkeen parametro edo aldagai exogenoak.
- Tresna bakoitzak helburu anitzetan eragin dezake.
- Tresnak bost azpitaldetan sailkatu daitezke.
 - ❶ Monetario eta kreditizioak (moneta politika)
 - ❷ Gastu publiko eta zergak (politika fiskala)
 - ❸ Komertzialak eta ganbio tasarenak
 - ❹ Kontrolak eta erregulazio zuzenak (errenten politikak)
 - ❺ Aldakuntza instituzionalak

TRESNEN SAILKAPENA

| TRESNA MOTA | HELBURUAK | | | | | |
|--|-----------|-----|---|---|-----|-----|
| | A | B | C | D | E | F |
| MONETA POLITIKA | | | | | | |
| Intereses tasaren (diru eskaintzaren) erregulazioa | + | | | | | |
| Merkatu irekiko operazioak | + | | | | | |
| Derrigorrezko kutxa koefizienteak | + | | | | | |
| Birdeskontu tipoaren aldaketa | + | | | + | (+) | |
| POLITIKA FISKALA/AURREKONTU POLITIKA | | | | | | |
| Gastu publikoa | | | + | | | + |
| Estatuaren inbertsioak | | + | + | | | (+) |
| Familiei ematen zaizkien transferentziak | | | | | | + |
| Enpresei ematen zaizkieen subsidioak | | + | + | | | |
| Errentaren eta aberastasunaren gaineko zergak | (+) | | | | | + |
| Sozietateen gaineko zergak (mozkinak) | | | + | | | + |
| Zeharkako zergak | (+) | | | | | + |
| Gizarte Segurantzaren kuotak | | | | | | |
| ERREGULAZIO ZUZENAK | | | | | | |
| Prezioen kontrolak | + | | | | | + |
| Ekoizpen sektoreen erregulazioak | | (+) | + | + | | |
| Alokairu eta beste errenta batzuen kontrolak | + | | | | | + |
| GANBIO TASA ETA KANPO MERKATARITZA | | | | | | |
| Monetaren devaluazioa | | | + | + | + | |
| Merkataritzaren gaineko kontrolak | | | | | + | |
| Mugasariak | | | | + | + | |
| ALDAKUNTZA INSTITUZIONALAK | | | | | | |
| Lurraren jabeagoaren erreformak | | + | | | | + |
| Nazionalizazio/pribatizazioak | | (+) | | | | + |
| Hezkuntza sistemaren erreforma | | | | + | | + |

A: inflazioaren kontrola, B: enpleguaren sorrera, C: hazkundera, D: efizientziaren hobekuntza, E: kanpoko balantzaren hobekuntza, F: errentaren birbanaketa

POLITIKA EKONOMIKOEN TAXONOMIA

- *P. Kuantitatiboak*: ekonomia egoera jakin batzuetara moldatu nahiaz, tresna mailetan eginiko aldakuntzak, ekonomiaren oinarri instituzionalak mantenduz. Ad.: Zerga tipoak aldatzea, interbentzio prezioen aldaketa (nekazaritzan), bankuei ezartzen zaizkien kutxa koefizienteen aldaketak.
- *Politika kualitatiboak*: Antolakuntza ekonomiko eta sozialaren funtsezko oinarriak mantenduz, egiturazko aldaketak dakartzaten politikak. Ad. Zerga sistemaren aldaketa, zerga mota berriak sartuz edo eta zerga mota bakoitzak diru bilketan duen ponderazioa nabarmenki aldatuz.

- *Oinarrizko erreformak*: Sistema ekonomikoaren oinarrien aldaketa partziala edo osoa dakarte. Ad: Zentralizazioa/dezentralizazioa erabakiak hartzeko orduan, jabego eskubidearen kontrolaren aldaketa, nazionalizazioak.
- *P. makroekonomikoak*: ekonomiaren oreka nagusienekin erlazionatzen diren agregatu eta aldagai makroekonomikoetan (*barne produktu gordina, inbertsioa, prezioak, kanpo zorra, aurrekontuen defizita*) eragitea bilatzen duen politika. Ad: gastu publikoaren igoera, inteses tasaren aldaketa.
- *P. mikroekonomikoak*: baliabideen esleipena aldatzeko asmotan, eragileen erabaki indibidualak alda erazteko bideratzen diren politikak. Ad: Hainbat ondasunen kontsumoa edo ekoizpena murriztu edo indartzeko jarri daitezkeen zerga edo subentzioak.
- *Epe motzeko (1-2 urte) eta ertaineko (4-5 urte) politikak* edo *une bereziko politikak (koitunturalak)*: Epe motz/ertainean lortu daitezkeen helburuak lortzeko politikak. Ad. Inflazio maila, hazkunde tasa jakin bat lortu, defizit publikoa neurri jakin batetan murriztu. Eskari agregatua indartzeko neurriak.
- *Epe luzeko politikak (egiturazko politikak)*: Epe luzera soilik lortu litezkeen helburuak lortzeko politikak (>8 urte). Ad. errentaren birbanaketa lortzeko politikak, ekoizpen egituraren aldaketak, pagamendu balantzaren egiturazko defizitak konpontzeko egin litezkeen politikak, hezkuntza programak, azpiegiturak hobetzeko programa orokorrak.

POLITIKA EKONOMIKOA ETA ESKOLA EKONOMIKOAK

- Ekonomilari talde (eskola) desberdinek proposamen desberdinak egiten dituzte helburu ekonomiko berdinak lortzeko.
- Makroekonomiaren alorrean, bi muturreko korrante finkatu ohi izan dira: *ekonomia klasiko berria* betetik eta *Keynestar makroekonomia berria* bestetik.
- Eztabaida guztien atzetik hiru oinarrizko kontu errepikatzen dira.
 - ❶ Eskari agregatuaren determinazioari buruzko iritzi kontrajarriak.
 - ❷ Prezio eta soldaten malgutasunaren/zurruntasunaren eztabaida.
 - ❸ Eragileek itxaropenak (espektatibak) sortzen/moldatzen eta erabakiak hartzen dituzten modu desberdinak.
- Ikuspuntu anitza menderatzea garrantzitsua da politika ekonomikoan.
 - Ekonomilari batzuk zor publikoa murriztea proposatzen dute, kanporatze efektua ekiditeko.
 - Zergak murriztea epe luzeko hazkundera bermatzeko ezinbestekoa dela diote beste batzuk.
 - Estatuaren presentziaren debatea ere esanguratsua da. Batzuk estatuaren eskusartzea sendotu behar dela diote, beste batzuk, kontra, estatuaren presentzia ekonomian minimoa izan behar dela.
- Adostasuna: Keynestar ikuspuntua epe motzeko (ertaineko) ziklo ekonomikoak ulertzeko baliagarria den bitartean, epe luzeko hazkundera ulertzeko eredu neoklasikoa aproposagoa da.
- 1990.en urtean *Sintesi Neoklasiko Berria* adosten da.
 - ❶ Arrazionalak diren eragileek denboran zehar erabaki optimoak hartzen dituzte.
 - ❷ Keynestarren elementuak (prezio zurrunkak eta lehia inperfektua) barneratzen dira oreka orokorraren eredu dinamikoan.
 - ❸ Adostutako eredu (neokeinesanismoa deitzen da foru batzuetan) hiru ekuaziotan sostengatzen da: IS dinamiko bat (espero den ekoizpen maila barneratzen duena), moneta politikaren arau bat, eta inflazioaren espektatiba barneratzen duen Phillipsen kurba berritu bat.
- Adostasun berri honi 2 kritika nagusi: formalizazioaren biderketa exponentzial gorakorra (guztiz konplexua) eta mundu erreala interpretatzeko zailtasuna. Gainera, nazioarteko finantza krisiarekin batera sintesi berri honenganako atsekabea nabarmenki hasi da.

- Dena den, Europan, EEUUrekin konparatuz, aipatutako sintesia ez da hain sakonki sartu, agian, bi ekonomien arteko desberdintasun nabarmenengatik.
 - Europan malgutasuna txikiagoa da (bereziki lan merkatuan) eta ekonomiaren alderdi instituzionalen garrantzia handiagoa da.
 - Bereziki, Europan merkatu boterea daukaten eragileen interakzioan oinarritutako keynestar tradizioan oinarritutako ereduak proposatu dira.
- Edozein kasutan, adostasun berrian (EE.UU zein Europear erara) eskola ekonomiko desberdinek aztarnak zein sostenguak somatzen dira. Hona hemen eskola desberdinei dagozkien haibat pintzelkada.

KLASIKOAK

- Ekonomiaren berezko indar zuzentzaileetan oinarritzen da ekonomia klasikoa (D. Ricardo (1817), J.S. Mill (1848), A. Marshall (1890)).
- Abiapuntu nagusia: prezio eta soldaten malgutasun perfektua.
- Eskaintza agregatu (OA) guztiz bertikala.
- Ekonomiaren iraunkortasuna \Rightarrow desoreka egoera batetatik abiatuz ekonomia automatikoki eta azkar mugitzen da epe luzeko orekara. Beraz, ziklo ekonomikoak ez dira existitzen.
- *Say-ren Merkatuen Legea (1803)*: “Eskaintzak bere eskari propioa sortzen du” \Rightarrow gehiegizko eskaintza makroekonomiko egoera ezin da gehiegi luzatu.
- Langileek enpresek ekoiztu dezaketen edozein kantitate erosi dezakete \Rightarrow superproduzioa ezinezkoa da.
- Lehia perfektupean *enplegu bete*a lortzeko berezko tendentzia du ekonomiak. Ekonomia beti dago enplegu betean. Beraz, desenplegua fenomeno boluntarioa da. Momentuko soldatan nahi duen guztiak aurki dezake lana. Existitzen den desenplegu bakarra *frikzionala* da.
- Teoria klasikoak bi funtsezko ondorio ditu politika ekonomikoarentzat:
 - 1) Ekonomia enplegu betetik tenporalki eta une laburrez soilik urruntzen denez ez da atzeraldi larrik egongo.
 - 2) Eskariaren politikek prezioetan eraginko dute soilik, inñolaz ere enplegu eta ekoizpen mailan. Ad. Eskariaren politika hedatzaile baten ostean: $[\Delta Y=0, \Delta P>0]$.

KEYNESTARRAK

- 1929ko depresioak klasikoen sostenguak hautsi zituen.
- *Okupazioaren, interesen eta diruaren teoria orokorra* obrarekin Keynesek (1936) paradigma berri bati ekin zion, teoria eta politika makroekonomiko berri baten oinarriak finkatuz.
- Bi dira teoria keynestarraren abiapuntu nagusiak:
 - ❶ Preziok eta soldatak zurrinak dira.
 - o Muturreko egoeran epe laburreko OA horizontala da (edo eta gehienez malda positiboa du).
 - o Beraz: eskaintzak ez du bere eskaria sortzen.
 - ❷ Ekonomia desenplegu inboluntarioa dagoen oreka makroekonomiko batetan gelditu daiteke harrapaturik.
 - o Egoerak horrek luze iraun dezake, arazoak, klasikoek ziurtatzen zuten bezala, berez konponduko ez direlako.
 - o Ekonomiak zikloak izateko joera naturala duenez, gobernuek jarduera ekonomikoan eragin dezakete politika fiskala eta moneta politikaren bitartez.
 - o OAK malda positiboa duenez ekoizpena, errenta eta enplegua igo egiten dira eskariaren politika hedatzaileekin.
 - o DA lerratzean ekonomiak izango dituen onurak handiagoak izango dira zenbat eta OA horizontalagoa izan.

MONETARISTAK

- Monetaristek lotura nabarmenak mantentzen dituzte bai klasiko zein keynestarrekin.
- Monetaristek (M. Friedman, Frank H. Knight y Friedrich A. von Hayek), *diruaren ekuazio kuantitatiboan oinarrituz* (Fisher, Marshall) moneta politikaren garrantzia goraiatzeko dute.
- Diruaren eskaintza epe laburreko BEGaren fluktuazioen eta epe luzeko prezio aldakuntzen determinatzaile nagusia (bakarra) da.
- Diruaren ekuazio kuantitatiboa.
 - $M \cdot V = P \cdot Y = P_1 \cdot Y_1 + \dots + P_n \cdot Y_n \Rightarrow P = M \cdot [V/Y]$ non V diruaren abiadura (kte), M diru kantitatea, P prezioak, $Y=Y_{EB}$
 - V kte izanik eta $Y=Y_{EB}$, M kontrolatuz prezioen maila kontrolatzen da.
 - ΔM arau finkoa proposatzen dute hazkundearekin bateragarria den prezio maila lortzeko.
- Dirua da DA-ren determinatzaile nagusia. Moneta politikaren bitartez eragin daiteke DA-n. Politika fiskalak ez du eraginik DA-n.
- Soldatak eta prezioak nahiko malguak (ez guztiz malguak klasikoen zioten bezala, ez zurrunik keynestarrek defendatzen zuten bezala) dira.
 - Teknikoki: Epe laburreko Phillipsen kurbak malda negatiboa du, baina nahiko bertikala da. Aldiz, epe luzeko Phillipsen kurba guztiz bertikala da.
 - Diru kantitatearen aldaketak *epe motzean* (Y, P) aldagaietan eragiten du, baina *epe luzera* ($Y=Y_{EB}$) prezioetan bakarrik izango ditu eraginak, eragileek inflazioaren gaineko espektatibak moldatzean epe laburrero Phillipsen kurba eskubirantz lerratzen delako.
 - Politika fiskalak apenas izango ditu eraginak (Y, P) aldagaietan, ez epe laburrera ez epe luzera.
 - Sektore pribatua nahiko iraunkorra da ekonomian. BEG nominalaren fluktuazio gehienak gobernuaren eskusartzearekin lotzen dira. Konkretuki diru eskaintzaren aldaketarekin eta Banku Zentralen moneta politikarekin.

KLASIKO BERRIAK

- 70.en hamarkadan jasandako eskaintzaren shock-ak jakean jarri zuten ikuspuntu keynestarra. 1973eko petroleoaren prezioaren igoera bortitzak ekarri zuen eskaintzaren kontrazioa zuzentzeko egindako eskariaren politika hedatzaileen ondorioak gehituz, inflazioa eta desenplegua aldi berean igo ziren. Garaiko fenomeno berri hau *stagflazio* izenez ezagutzen da.
- 70-en hamarkadan (*R. Lucas, T. Sargent, R. Barro, etabar*), klasiko eta monetaristen tradizioa berenganatuz, bi ardatz nagusi barneratzen ditu klasiko berrien eskolak:
 - ❶ Prezio eta soldaten malguasuna: Prezioak eta soldatak berehala moldatzen dira oreka lortu artean.
 - ❷ Itxaropen (espektatiba) arrazionalak. Eragile ekonomikoek eskura duten informazio guztia eta teoria ekonomikoa bera erabiltzen dute espektatibak kalkulatzeko eta erabaki ekonomikoak hartzeko. Erruak egin ditzateke, baina erruak ez dira sistematikoak izango. Hau da jendearen predikzioak joeragabekoak izango dira.
 - Jendeak ekonomiaren funtzionamendua eta gobernuaren portaera oso ongi ulertzen ditu. Agintari ekonomikoek ezin izango dituzte eragile pribatuak iruzurtu politika ekonomiko sistematikoekin, hauek maneiatzen duten informazioa guztiz perfektua delako.
- ❶ + ❷ oinarrituz: Nolatan ager daitezke desorekak? Aldez aurretik aurreikusi edo antizipatu ezin daitezkeen ausazko shock-en ondorioz.

- Hala ere, desorekak tenporalak izango dira. Prezio eta soldaten malgutasunak orekara bueltatuko du ekonomia.
- Klasiko berrien ikuspuntuak ondorio garrantzitsuak ditu politika ekonomikoarentzat:
- ❶ Aldez aurretik antizipaturiko politika ekonomikoak ez du inolako eraginik ekoizpen errealean eta desenpleguan.
 - Ad. Hauteskunderen garaian gobernuak GP igotzeko ohitura badu, jendeak aldez aurretik igarriko du portaera hori eta politika hedatzailearen ondorioak barneratuko ditu itxaropenen kalkuluan $\Rightarrow \Delta p^e$. Soldatak inflazioari doituiko zaizkio $\Rightarrow [\Delta w / \Delta p^e] \Rightarrow$ soldata erreala konstante mantentzen denez jendeak ez du lan gehiago egingo. Beraz enplegua eta ekoizpena ez dira igoko.
 - Nola esplikatzen da depresio garaietan agertzen den desenplegu *boluntarioa*? Krisialdi garaietan prezioak eta soldatak murrizten dira. Jendeak lana uzten du hobeto ordainduta dagoen bat bilatzeko...
- ❷ Politika ekonomikoak ezin ditu gauzak hobetu. Baina okertu egin ditzake jendea ezustean harrapatzen badu.
 - Zer gertatuko litzateke agintari ekonomikoek ezustean harrapatuko balitu eragileak? Demagun bapatean diru eskaintzaren murrizketa gertatu dela, aldez aurretik antzipatu gabeko prezio eta soldata murrizketak agertzen direlarik. Langileek ez dute somatzen prezioen murrizketa soldaten murrizketa bezain azkar gertatzen ari denik. Soldata erreala murrizten ari dela uste dute eta ondorioz lan gutxiago eskaintzen dute, horrela desenplegua igotzen delarik. Beraz pertszeptzio erruen ondorioz zikloaren gora-behera laburrak ager daitezke.

KEYNESTAR BERRIAK

- Keynestar berriek fluktuazio ekonomikoen eredua garatzeko konpromisoa hartzen dute. Askok (ez denek) eskariaren teoriaren abiapuntu bezala IS-LM eredua hartzen dute. Eskaintzaren partea zorrozten saiatzen dira.
- Bereziki soldata eta prezioen epe motzeko portaera aztertzen dute.
- Hipotesia: p eta w zurrinak dira \Rightarrow arazo guzien oinarria.
- Zergatik dira prezioak eta soldatak zurrinak? Lan merkatuaren izaera *ez konpetitiboa* azpimarratzen duten hainbat teoria garatzen dituzte. Adibidez: Efizientzia soldaten teoria eta insider outsider-ereduak.
- Politika fiskal eta moneta politika aktiboa defendatzen dute.